



IRRIEN LAGUNAK OARSOALDEAN EKIMENA



Ekimena zergatik eta zertarako

Gure baitan gauzak aldatzeko grina genuen lagunok sortu genuen Irrien Lagunak Oarsoaldean ekimena. Gure alabekin eta semeekin dugun elkar-bizitza eta haiei utzi nahi diegun jendartea eraldatu behar genuela sentitzen genuen, etorkizun hobea eman nahi geniela.

Etorkizuna, ordea, orainean eraikitzen da, eta eraikuntza horretan haurrak ekintzaile nagusi direla pentsatzen dugu.

Idea hau garatzeko bidelagun apartak topatu genituen, eta elkarrekin abiatu genuen Oarsoirri egitasmoa: Huhezi fakultateko Sorguneak ikertegiko lagunak eta Euskal Herriko Irrien Lagunak ekimeneko kideak.

Eta abiatu ginen. Antzeko kezkak genituen bailarako guraso eta haurrak, hainbat herri eragile eta erakunde eta udaleko teknikari eta zinegotziak bildu ginen lehen bilkura batean. Sarrera duzuen argazkian ikus dezakezuen argazkia da lehen deialdikoa. Ehundik gora pertsona lehen deialdian!

Zuen herrian zer aldatuko zenukete? Zer nahi duzue?

Galdera hauei erantzuten saiatu ginen haur eta heldu, barruan duguna modu desberdinetan askatuz: jolas, marrazki, antzerki eta hitzen bidez, haurrak eta helduak taldetxotan bilduta.

Bukaeran guztiok partekatu genituen batzuen eta besteen iritzi eta proposamenak.

Egun horretan **aisialdi herrikoi, aske, euskaldun, parekide, goxo eta parte-hartzaile baten aldeko erronka** egingarria zela ikusi genuen. Herriko txikienek asko daukate guri erakusteko, bai horixe!



Ekimenaren oinarriak

Ekimenaren oinarriak lehen bilkuran finkatu genituen. Etorkizuneko gure herria nolakoa nahi genuen galderari erantzunez zehaztu genituen egitasmoaren lau oinarriak:

- **Euskara**

Ekimenaren erdigunean jarri dugu euskara. Euskararen inguruan herritarrak trinkotu eta gune sinboliko publiko eta ospatzailea irudikatu nahi dugu. Euskara izan dadin egitasmo erakargarri, bizigarri eta hezitzaile baten giltza, horrek erakarriko duelakoan euskalduna eta baita euskalduna ez dena edota euskarazko mundua urrun edo arrotz zaion hura ere. Beti gozamenetik.

Euskara berez balio bat da bere baitan, edo izan liteke, balio hezitzaile bat, inklusiboa eta irekia delako. Euskara berak ekar lezakeelako gure ahoz eta gure praktikaz komunitate justuago, irekiago eta parte-hartzaileago bat.

- **Balio hezitzaileak**

Ez digu edozein aisia moduk balio, balioetan heziko gaituen egitaraua osatu nahi dugu, bai edukiei dagokionez eta baita egiteko moduetan ere.

Gure lehen bilkuran balioen zerrenda luzea osatu genuen: aniztasuna, berdintasuna, inklusibitatea, errespetua, komunitarioa, ez kontsumista, euskara eta euskal kultura, autonomia, sormena, adiskidetasuna, natura, elkartasuna...

- **Parte hartzailea**

Parte-hartzea gizartea antolatzeke tresna bat da funtsean, politika egiteko beste modu bat. Parte hartzea ikasketa prozesu eraldatzaile bezala ulertzen dugu, inplikazio eraldatzailea sortzeko tresna gisa. Eta jakina, parte-hartzea gozamenerako tarte bezala ulertzen dugu.

Jendea biltzeko modu berriak, erabaki gune berriak sortu ditugu, herri batzar inklusibo, ireki eta askeak.

Komunitate osoak parte har dezan, umeen parte-hartzea da giltza, eta ekimen honetan, subjektu politiko sozial gisa, erdigunean jarri ditugu.

- **Herritarra, auzolanean gauzatua**

Euskal herriko jendeak badu herritarren parte-hartzea izendatzeko berezko modu bat: auzolana. Gure ekimenak praktika kolektibo hori sustraitu eta zabaldu egin nahi du.



Umeen parte-hartzea erdigunean

Umeen parte-hartzeak ezin du erretorikoa izan, erreala eta zintzotasunez onartutakoa baizik. Umeak ez dira egitasmo honen kontsumitzaile huts, ez dira gonbidatu. Herri sortzaile eta parte hartzailea eraiki nahi dugu eta, etorkizunean herri horren partaide izango diren umeak hezten hasi behar badugu, eurak protagonista, subjektu aktibo, bihurtu behar ditugu.

Zer esan nahi du umeak protagonista izango direla? Umeei zuzenduriko programazio bat garatzeko, programazio horren diseinuan, antolaketan, eztabaidan eta erabaki guneetan umeek egon behar dutela, gainontzekoen berdintasun planoan. Horrek ez ditu baztertzeko ez helduak ez gazteak programazio horien gozamenetik eta kontsumotik, eta are gutxiago programazio horien antolaketatik.

Lau ezaugarri funtzional eta hiru printzipio

1. Laborategi izaera

Proiektuaren ezaugarria da, halaber, hein handi batean laborategi izatearena. Egitasmo berri eta bakarra delako orain artean, eta herri eta berariaz komunitate batzuei begirakoa delako. Horregatik diogu laborategi izango dela, emandako urratsek, hartutako erabaki eta konpromisoek hurrengo urratsak bideratuko dituztelako. Egitasmoaren izatea eta diseinua egin ahala zehaztuko delako, eta gorputz hartzen joango delako. Ez da aurrez diseinatu eta erabakitako egitasmo baten goitik beherako ezarpena:

- **Behetik gora:** herri ekimenetik abiatutakoa eta herri ekimenean oinarritutako egitasmoa da bete-betean.
- **Zehar-lerrotasuna:** euskara, kultura, ongi izatea, haurtzarora, gaztedia, gurasoak, helduak, aisia, hezkuntza, natura, herrigintza, saretzea, dinamizatzeko... eta beste eremu eta kontzeptu batzuk zeharkatzen dituen egitasmoa da.
- **Modu horizontalean:** egitasmoa eraikitzen joango da, taldeen bitartez parte hartzea bideratuz, eta lan banaketa eta erabaki-hartzeak praktika demokratikoetan eta berdintasunezkoetan oinarrituz.

2. Genero berdintasuna

Parte-hartzeak parekidea behar du izan, genero ikuspuntutik: gizon eta emakume kopuru bera, alegia. Baina ez hori bakarrik, edota ez hori ezinbestez; hori bezain garrantzitsua da genero rolen sortzen dituzten funtzionamendu desberdin eta desberdintzaileak kontuan izatea, eta horiei buelta eman eta benetako parte-hartzea bultzatzeko formulak topatzea, emakumeen kasuan eta baita umeen kasuan ere, dela batzordeetan, dela lantaldeetan, dela antolakuntzan, dela agerpenetan, dela ezein lanetan. Agerpen publiko eta erdi-publikoetan emakume eta gizonen parekotasunak ezinbestekoa izan beharko du.

3. Herrien autonomia

Herrietako giza taldeei dagokienez, egitasmoa herri bakoitzeko zirkunstantzia zehatzetara egokituko da, hots, ikusita herri bakoitzean zer gogo dagoen, zer indar sumatzen den eta zer iruditeria, premia eta zer egiteko dauden. Horren arabera bereiziko da herri bakoitzean zer egingo den; hala ere



proiektua bakarra da nahiz eta herri bakoitzean modu berezian burutu. Beraz, herri bakoitza autonomia da.

4. Eskualde mailako koordinazioa

Baina aldi berean koordinatutako egitasmoa izango da, bai lan sistemari dagokionez, eta bai marko orokorraren aplikazioari dagokionez. Nork bere bidea eginagatik, guztien artean partekatua eta elkar elikatua izango da. Eskualdearen izaera indartzeko eta bertan identifikazio eta lan eremu bat sakontzeko baliagarri izan daiteke.

Egitasmoak hiru printzipio bete behar ditu ezinbestean, Irrien Lagunak proiektua eta herrietako kulturentza ondo ezkon daitezen, eta ez errepikapenik, ez ordezkapenik, ez kanpotik ezarritako ekimenik egon ez dadin, herrian herriko batzorde nagusiak onartu ez duenik. Hauexek dira hiru printzipioak:

- ✧ **Dagoena ez ordezkatzeari:** herrietan egon badagoen dinamika, ekimen, talde edo programarik ez da ordezkatzeko. Ez da berririk sortuko. Herrian dauden baliabide, giza talde, egitasmo, ekimen, programa eta beste errespetatutako dira; guztiak gonbidatutako dira egitasmoa eta guztiei emango zaie aukera eragile aktibo izateko; herriko eragileen esperientzia eta gogoia izango baitira egitasmo honen bermeetako bat.
- ✧ **Ez dagoena sortzeko aukera:** herrian ekimen edo programa jakin bat ez badago, eta batzordeak hala erabakitzen badu, sortu egin daiteke.
- ✧ **Herrietako bestelako prozesuak kontuan hartzea eta ahal dela bateragarri edo osagarri egitea:** herrian dauden beste prozesu eta egitasmoekin (kulturalak nahiz parte hartzeak) uztartzeko helburua izango du printzipioz. Ikusiko dugu nola egin litekeen elkarlana, nola erabil litekeen prozesu hau beste egitasmoen onurarako, eta alderantziz. Umeei zuzendutakoa izanagatik, herrigintza sarea egitea delako helburu nagusietako bat.

Ekimena gauzatzen

Umeen parte-hartzea praktikan jartzeko moduak

Oinarrietan aipatu dugun bezala, umeak ez dira egitasmo honen kontsumitzaile hutsak, ez dira gonbidatu hutsak. Aisiako jarduerak diseinatzen eta antolatzen, eta eztabaida eta erabaki guneetan umeak jarri ditugu. Hori da proiektu honen oinarri sendotetako bat: umeak prozesuan integratzea eta euren ahotsa eta erabakiak erdigunean jartzea. Herri sortzaile eta parte-hartzailea eraiki nahi dugulako.

Horretarako, txikitatik hasi behar dute umeek euren iritzia ematen eta euren ekarpena egiten. Ez daude ohituta; gauza berria da. Heldu askorentzat ere bai. Baina bidea eginez ikasten omen da, eta Oarsoaldeko haurrekin hasi gara bidea egiten.

4-12 urte bitarteko umeak hasi dira lanean; horiek dira proiektu honetan protagonista nagusiak. Euren iritzia eskatu diegu, erabaki adostuak lortzeko aukera eman diegu, eta ekimen zehatzak gauzagarri egiteko lehen urratsak eman dituzte. Horretarako, helduen herri batzarretan bildu diren guraso eta gazteak umeen parte-hartze prozesuaren dinamizatzaile bihurtu dira.



Oiartzungo umeak ekimanaren logoa izango zena diseinatzen

Umeen parte-hartzea lortzeko bide desberdinak erabili dira herrietan.

Errenterian eta Pasaian herriko ikastetxe guztietara jo da eta bertan egin dira lehen hiru saioak. Ondorengoak ikastetxetik kanpoko aretoen batean egin dira, ikastetxe desberdinetako haurrak batera bilduz.

Oiartzunen adinaren arabera banatu, eta zenbait topalekutan bildu dituzte: liburutegian, ludotekan, udaletxean, ikastolan...

Lezon deialdi irekia egin, eta kalean bildu dira haurrak euren gurasoekin.

Guztira 440 bat ume bildu dira lau herrietan eta horiekin 60 pertsona baino gehiago aritu da begirale lanetan. Ondoko taulan laburbilduta jaso dugu herri bakoitzeko parte-hartzea:

	Haurrak	Begiraleak	Topalekua
Pasaia	100	12	Ikastetxeetan abiatu eta ondoren herriko beste aretoetara atera dira
Oiartzun	150	30	Adinaren arabera, liburutegian, ikastolako jantokian, ludotekan eta udaletxean
Lezo	40	8-10	Kalean, herriko plazan eta orube batean
Errenteria	150	12	Ikastetxeetan abiatu eta ondoren kalera eta herriko beste aretoetara



Lezoko umeak orubearen ondoan

Lehen hiru saioetan euren herria hobetzeko proposamenak egin eta adostu dituzte. Proposamenok aurkezteko hainbat saio ere egin dituzte: gurasoei, herrietako alkateei, aurkezpen irekiak herritarrei...

Proposamen hauek gauzatu bitarteko prozesu guztia haurrak lantzen ari dira eta, herri bakoitzean euren dinamika propioarekin, hor jarraitzen dute euren parte-hartzea finkatzen.

Umeen parte-hartzea abiatzeko aurreko bide hori landu badugu ere, gure erronka da Irrien Lagunak proiektuak lantzen dituen proposamen guztietan haurren parte-hartzea bermatzea, bai ekintza puntualetan eta bai ekimen sendoago eta luzeagoak gauzatzeko garaian. Umeak eta helduak elkarrekin lanean aritzea da gure helburua, elkarrengandik ikastea, betiere berdintasun plano batean.

Umeek landu dituzten gaiak eta egin dituzten proposamenak

Herri bakoitzean, bertako behar eta kezkei egokituta, gai desberdinak landu dituzte. Herri batzuetan, Oreretan eta Oiartzunen, euren herrian zer nahiko luketen galdetu eta euren ametsak proposatzen jarri dituzte haurrak. Beste herri batzuetan gai zehatzagoak landu dituzte: orube zehatz batean zer egin nahiko luketen, edota herri bateko barrutien arteko harremana nola hobetu daitekeen.



Errenteriako umeak eta gurasoak herriko paretak koloreztatzen



Hementxe laburbilduta herrietan umeek landutako gaiak eta gauzatuko dituzten proposamenak:

	Gaia	Proposamenak
Lezo	Markesaneke orubea Hutsik dagoen orubean zer egingo dugu?	- Murala margotu - Eskultura bat jarri - Zuhaitz bat landatu - Barraskilo lasterketa antolatu - Tirolina bat jarri
Pasaia	Barrutien arteko lotura nola hobetu Pasaiaiko lau barrutien arteko banaketa oztopo handia da umeentzat aisiaz eta beste barrutietako lagunak harremanaz gozatzeko.	- Badia inguratuko duen bidegorria egitea - Itsasontzi/motora zerbitzua osatzea: barruti guztietara iristea. - Txartel bakarra barrutien arteko garraio-bide guztietarako. - ...
Oiartzun	Herriko paretak margotzea! Oiartzungo haurrek herria hobetzeko proposamen asko egin dituzte, baina nondik hasi nahi zuten ere argi zuten: herriko paretei kolorea ematea, margotzea.	- Herriko paretak margotu: bidegorriko komunak... - Skate parkea - Zelai lekuak konpondu - Iturri gehiago - Txakur kakarik ez! - ...
Errenteria-Orereta	Kolorea eta natura ardatz Errenteriaiko haurrek naturarekin eta kolorearekin lotzen dituzte euren ametsak.	- Herriko horma grisak koloreztatu - Inguruko natura ezagutzeko irteerak - Eskulanean aritu - Koloretako loreak dituzten zelaietan eta koloretako putzuetan jolastu. - Antzerkia egin

Proposamen horiek aurkezteko eta gauzatzeko hainbat ekimen martxan jarriak dituzte dagoeneko: hainbat aurkezpen (alkateei, gurasoei, herritarrei...), Pasaiaikoek arkitektura eskolako ikasleekin bilera euren proposamenak partekatzeko, paretak margotu (euren proposamenak marrazkietara ekartzeko edota herriko paretei kolorea emateko), Badia egunean bizikleta-bira badiari, euren proposamenak jasoko dituen bideoa egiten ere hasiak dira...



Pasaiaiko gaztetxoek Tonucciri azaldu zizkieten lantzen ari diren proposamenak



Bidegorriaren proposamena ezagutzera emateko bizikleta-bira antolatu zuten Badia egunean Pasaian

Helduen parte-hartzea

Herri guztietan ekimenaren aurkezpenak egin genituen, eta eskualde mailako iritzi trukerako topaketan proiektuaren oinarriak finkatu eta herri batzarrak eratze bideari ekin genion. Hilean behingo maiztasunarekin hasi ziren biltzen herri batzar horiek. Batzar horietan herritarrek, herriko eragileek eta udaleko ordezkariak (teknikariak eta politikariak) hartzen dute parte berdinetik berdinerara. Herri batzar hauek dira herrietako muina; ekimena herrian gauzatzeko proposamenak bildu eta adosten dituzte.

Herriak autonomiaz ari dira euren aisialdi eskaintza osatzen baina, eskualdeko ekimena den neurrian, eskualdeko koordinazio bilerak egin izan ditugu hiru hilez behin. Proiektuaren norabidea elkarrekin baloratzea eta bideratzea du helburu eskualdeko koordinazio gune honek.

Ekimenean gehienbat gurasoak bildu izanak parte-hartzeko modu asko ekarri du: batzuk hilero edo tarteka herri batzarretara etortzen dira; beste batzuek hainbat ekintza antolatze arduratxoak hartzen dituzte; eta beste batzuk ekintza puntualetara etortzen dira. Horretan ere oso aberatsa da Irrien Lagunak ekimena, ekimenean parte hartzeko edo ekimeneko kide sentitzeko modu asko eskaintzen baitu.

Ekimenera, herri batzarretara, antolatu diren ekintzetara... eskualdeko 150-200 bat familia hurbildu dira. Gurasoez gain, herriko hainbat eragile ere parte-hartzen ari dira ekimenean, eta elkarlanerako bideak lantzen ari gara eragile gehiagorekin ere.



Elkartzeko guneak

Euskal Herrian oso ohikoa dugu bilera formatua. Guk, honetan ere, urrats bat gehiago eman nahi dugu, gurasoak eta umeak elkarrekin lanean aritzeko ezinbestekoa da elkartzeko gune eta modu berriak frogatzea:

- Bilerak parkeetan, umeak elkartzen diren guneetan...
- Saio bateratuak: umeak eta helduak elkarrekin biltzeko guneak...

Frogatzen eta ikasten ari gara, guretzako egokiagoak diren modu berri horietan asmatuko dugulakoan.

Prestakuntza

Umeekin batera helduok ere hezi egin nahi dugu, geure buruak eraldatu nahi ditugu, herria bera eta bertako harremanak eraldatuz.

Batzartu, eztabaidatu, erabaki, antolatu, ekin eta gauzatzeaz gainera, geure buruak janzteko tartea ere hartzen dugu.

Hainbat prestakuntza-saio egin ditugu jada: aisia hezitzailearen gainean, umeen parte-hartzearen gainean, Tonucciren pentsamendu eta praktikaren gainean. 2013/14 ikasturte berri honetan bsete hainbat saio ditugu egiteko: umeen sorkuntzari loturikoa, guraso euskaldunentzako telp egokituari dagokiona, guraso erdaldunenei zuzendurikoa eta hezkidetzari buruzkoa.

Baina, esan beharra daukagu, gehien gehiena eginez umeei entzunez eta elkarrekin lan eginez ikasten ari garela. Gure laborategi hau ikasteko gune emankorra dugu.





Prestakuntza saioak ere elkarrekin egiten hasiak gara umeak eta helduak. Goiko hauek Tonucciren lana eta pentsamendua ezagutzeko egin genuen saioko argazkiak dira.

Aisialdi egitarauko jarduera batzuk

Ekimen berria da gurea, abiatu berria. 2012ko martxoan egin ziren aurkezpenak, apirilean sortu ziren herrietako batzordeak eta abenduak egun osoko Irrigintza jaia izan zen lehenengo ekintza handia. Ekintza honek eta herrietako umeen parte-hartze prozesuek lagundu digute dinamika abiarazten.

Egitasmo ugari gauzatu da dagoeneko denbora tarte honetan. Herriz herri hainbat jarduera antolatu dira, baina eskualdeko irrien lagunei parte-hartzeko gonbita ere egiten zaie, gehienak ekintza irekiak baitira. Eskualde mailako egitarauak ere antolatzen ditugu tarteka. Hona hemen orain arte egindakoen zerrendatxo bat:

- Ekimenaren logoa diseinatzeko Oiartzungo ehundik gora umek hartu zuten parte.
- Badia inguratuko duen bidegorriaren inguruan: Hiria arkitekto kolektiboarekin proposamena landa da, herritarren artean proposamena ezagutzera emateko eta herritarren iritzia biltzeko bideolan bat osatzen ari dira umeak, horma handi bat pintatu dute euren eskaria irudikatuz, Badia egunean bizikleta-bira antolatu da bidegorria izan daitekeen ibilbidea eginez...
- Lezoko oruberako, aisialdirako hainbat proposamen landu dituzte hurrek, orubea bera berreskuratzeari gainera, umeen jolasleku izan dadin.
- Hirigintzako erabakietan umeen parte-hartzea bideratzeko “umeen foroa” osatzeko asmoa lantzen ari dira Oiartzunen.
- Topaketa irekiak: kafe tertulia irekiak, ekimena ezagutzera emateko eta herrietan proposamenak osatzeko.
- Hileroko ekintzak antolatzen ari dira herrietan, herrietako asko herria bera ezagutzeko eta zaintzeko: baserriak eta baserriarren bizimoduak ezagutzeko, txondorra nola egiten den ikusteko irteera, itsas inguruak ezagutzeko irteerak, hondartza garbiketak...





- “Umeen brigadak” osatu dira herriko horma grisak koloreztatzeko.
- Irrigintza jaia: eskualdeko mila ume eta heldu inguru bildu zen gure lehenengo jaira.
- Eskualde mailako erromeria.

Ekintza eta jarduera hauek guztiak auzolanean gauzatzen ari dira, herritarren eta herriko eragileen parte-hartzearekin.



Oarsoaldeko Irrien lagunen eskualdeko lehen ekitaldi handiko argazkiak dituzue goiko hauek:
I. Irrigintza jaia.